



**Negu honetan,  
ahaztu hotza.**

**ESKAINZA  
PAREGABEA**

## Naturgas energiarekin, gas naturalez gozatuko duzu etxean.

Orain, erosotasunik handienaz gozatzea inoiz baino errazagoa da. Izan ere, fabrikatzaileekin eta gas-instalatzailerekin lortutako akordioari esker, guk gas naturalerako instalazio osoa egingo dizugu, eta zuk orain arte sekula inork eskaini ez dizkizun baldintzak izango dituzu.

Egundoko prezioan:  
**3.300€**  
(BEZ kanpo).

+

**KREDIGAS**

finantziazio berezia,  
instalazioa hileko kuota erosotan  
finantzatzeko.

+

**570€**  
ere emango dizugu

Promozio honek 08/12/31ra bitartean iraungo du.

Finantziazio berezi honen interes-tasa 2008rako %5,25ekoa izango da (Credigas). Gaueko tarifa baduzu, edo 65 urtez gorakoa bazara, 570 € jasoko duzu; halakorik ez baduzu, 270 € jasoko duzu. Prezioa gutxi gorabeherakoa da, barruko instalazioa egiteko, kondentsazio-galdara (markaren arabera) eta 6 erradiadore (45 elementu) jartzeko. Promozio estandarren gaineko edozein aldaketa, aparteko aurrekontua izango du. Promozio honetaz baliatzeko, Naturgas Energia Comercializadora, SAUrekin hornikuntza alta egin beharra dago.

902 123 456 Telefono Urdina  
www.naturgasenergia.com



**naturgas  
energia**

- **Kultura:** Revelphone Danbakan
- **Kirola:** Hiru autobuskada mendira

soraluzeko  
hamabostekaria **185.** alea  
2008ko urriaren 10ean

# PIL-PILEAN



**Krisia badator?**



# LIMPIEZAS TREJO S.L.

## Garbiketa Industrialak

**Errekalde, 30 behea**

**Tel.: 943 75 25 57**

**Fax: 943 75 25 56**

**20590 SORALUZE**

Garbiketa orokorrak

Garbiketa industrialetan espezializatua

Bulego eta lantegien mantenimendua

Makina garbiketak

Garaje garbiketak

Obra amaierak

Marmol eta terrazoen distiratzea

Graffiti garbiketa

Lurzoru handien errazketa eta fregatuak



**SORALUCE**

***Fresaketa teknologia***



**SORALUCE**  
GRUPO DANOBAT

**SORALUCE S.Coop.** • Osintxu auzoa • P.O.Box. 90 • E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Tel. +34 943 769076 • Fax: +34 943 765128 • Web: [www.soraluce.com](http://www.soraluce.com)

# ANTZERKIA

## MENU DEL DÍA

(Gaztelera) Urriaren 10ean,  
barixakua  
22:15ean  
kiroldegian



## SOMMER JAUNAREN ISTORIOA

(Euskaraz) Urriaren 17an,  
barixakua  
22:15ean  
kiroldegian



Antolatzailea: Soraluzeko Udaleko Kultura Batzordea



# Jazz Voices Ensemble

Urriak 24, barixakua, 22:30etan Kapillan



### Ze musika mota egiten duzue?

Entzule mota ororentzat egokia den errepertorioa eskaintzen dugu pop, jazz, musika latino eta filmeetako hots bاندen konposizioak oinarri hartuz. Erabilitako tratamenduan datza proiektu honen erakargarritasuna, jazzaren aberastasun armoniatsu eta erritmikoa profitatzen baitugu abestien melodia desitxuratu gabe.

### Zer du berezitik zuen taldeak?

Errepertorio koloretsua eskaintzen dugu, estilo kontrajarriekin, jazzaren errepertorioaren ahots pasarteetan sakonduz, estandar klasikoenarekin hasiz eta elkartzeko modernoekin amaituz.

### Nolako emanaldia eskainiko duzue Soraluzen?

Gure kontzertuak errepertorio oso zabala izango du. Joko dugun abesti bakoitzak azalpen txiki bat du eta oso errazak dira entzuteko. Beraz, animatu eta gerturatu kontzertua ikustera!



**BITTOR TREBIÑO****ANDER EPELDE**

## PILARIKAJA, JA, JA, JAI!

**K**aixo Ander, Egutegian domekek duten gorri kolorean margotuta datorkigu aurten Pilarica eguna, Ander. Sinbologiaz betetako eguna izanik, ezberdinak eta ugariak izango dira burutuko diren ospakizunak. Kuarteletan, adibidez, egunari atxikituz jairik ez da faltako; Espaniari laudorioak botatzen egingo dute festa batzuk. Oso-osorik beteko da domekan beraz, ezaguna den “jaietan jai” esaldia.

Pilarica eguna dela eta, ezin aipatu gabe laga Cristobal Colon, bera baita egun horrekin lotzen den gizon ospetsua. Konkistek sortzen zizkieten abenturarako gogo aitzaki, itsasoa hartzea erabaki zuen.

Asiara bidean, tokiarekin asmatu ez arren, amerikar indigenak indiotzat hartu zituen; horrekin konformatu ezin eta, konkistatzaile grina erakutsiz, amaiera gabeko kolonizazioari ekin zion. Merkatu libreak eskeintzen dituen aukeretaz baliatuz gaurko broker finantzieroen antzera, inolako erreparorik gabe espekulatzeari ekin zion: -nik zuri espilu disdiratsua eskeintzen dizut, zuk niri ematen didazun urrearen truke-. Nabegatzen ezezik, merkataritzan ere aurreratu zela ezin ukatu. Gertaera haiek izan zirela mendeak pasa arren, ospatzen jarraitzen ditu oraindik Hispanitateak.

Indigenekin egin zuten bezala, merkatua noiz zabalduko, espekulatzaileek beraien legeak jarriz hauteskunde merkatuan sartuko gaituzte laster batean. 🌀

“

### *Domekan beteko da jaietan jai*

Bittor Trebiño

### *Kutsu arrazista duen jaia*

Ander Epelde

”

**E**pa Bittor. Gaurko jai hau, oso jai handia da “espainiar” abertzale ultra demokratendako, Espainia bakar eta batu horretan sinisten dute-nendako, azken batean hortik bizi dira eta.

Horiek gero zer egin zuten?, bada, Espainia hori potentzia izan zan garaietako menpeko lurralde guztietara zabaldu, lur”barrietara” kutsu arrazista duen jaia, gaur egunean dakigunean, egin zutena genozidioa eta etnozidioa izan zela, Espainiaren ize-nean zenbat kultura eta hizkuntza ezabatu zituzten mapatik, ez jakin! Gaztelania espainola inposatuz, aurretik zegoen aberastasuna agur betiko, baina zoritxarrez oraindik ere hurrupaketa horrek badirau baina modu demokratikoan...

Eta jai hori kompetentziaz beteriko “Euskaditxo” honetan ere, derrigortuta gaude ospatzera, jai egitera, ze, argi dago hemen zeinek agintzen duen.

Guri horrelaxe erakutsi ziguten eskolan, haura gauza handia izan zela “Amerikako aurkikuntza” eta nik Bittor hauxe esaten dot, zer Amerikako aurkikuntza eta zer arraio! dakigunean hango “indiarrak”, pelikuletako gaiztoak, bertako bizilagunak ere gaizki bataiatuta, bake ederrean bizi izatetik, geroztik menpekotasun handienera itzuliz danen morroi bihurtuak.

Zer lotsa! Egun handitzat jotzen duten euskaldun askorentzat ere jai inperialista eta arrazista hori ospatu behar izatea, sarraski itzel horrengatik barkamena eskatu behar-reen. 🌀

**Goguan hartzeko****Jai guztiek, beren biharamuna.**

Gotzon Garate, Atsotitzak



## GUTUNAK

**URRIAK 25ean  
GAZTEOK  
HERNANIRA!**

**E**kainean herri berri bat pizteko deia egin genion gazteriarri. Pasa da udara eta itxurakeriaren bidetik aurrera ekin diote guretzat kolpe andana gordetzen zuten bitartean:

**1.** Iruzurrak urrats berriak eman ditu. urriaren 25ean ez dugu gezurterorik ikusiko boto-papera eskuan bozkatzeko. Zergatik? Espainiak esan diolako erabakitze eskubide bakarra espainiar herriak duela. Bagenekien. "La constitución se basa en la indisoluble unidad de la nación española". Urkulluk berak argitu digu: "el objetivo del PNV es mas autogobierno y no la consulta." PSOEk kontsulta ilegaltzat jo duen une berean aurrekontuak negoziatzeko lotsarik ere ez dute izan eta! PNVrena ez da abertzale izateko beste modu bat; PNV ez da abertzalea. Diruzale koadrila bat besterik ez da.

**2.** Gerra estrategiaren azkartzea. Udaran errepikatu egin dira militante independentisten aurkako erasoak. Gazteon aurkako erasoak, AN-Vren eta EHAKren legez kanporatzea eta Amnistia Aldeko Mugimenduaren aurkako epaia... salbuespen egoeran jarri gaituzte. Helburua? Gure ekinbide politikoa desitxuratzea eta belaunaldi berrien artean etendura sortzea. Min eman digute, baina inoiz ez dute lortuko etsipenean murgiltzerik.

**3.** Independentzi egarri ase ezina. Hedabideetan asko ikusi ez badugu ere milaka izan dira udara honetan gazte independentistoen deialdietan parte hartu dutenak. Bi gauza esan nahi izan ditugu: 1. Herri hau askatasunean bizitzeko Independentzia behar dugula, Euskal Estatu Sozialista eraiki behar dugula; 2. Kolpeak kolpe prest dagoela gazte belaunaldi bat lekukoa hartu eta herri hau garai-peneraino eramateko.

Ez gaude hemen burugorrrak garelako, hemen eusten diogu saldu ez garelako. Proposamen serioak ez dauden bitartean ez dugu ezer jakin nahi politikari mafioso horiekin. Herri honen aitortza eta aske erabakitze bidez ari gara; alegia, ezker abertzaleak proposatu autonomien eta erabakiaren oinarrietan kokatuko diren proposamenetaz.

Horregatik, urriaren 25ean HERNANIn batzeko deia egin nahi diegu saltzeko prest ez diren gazte guztiei; zatiketaren urteurren madarikatu horretan, Euskal Estatu Sozialista eraikitze bidean indarrak hartu eta etorkizun berria marrazteko.

Autobusean izena emateko zerrendak zabalik daude Gaztetxe, Arrano eta Gaztelupean. Ez itxaron azken unerarte eta eman izena!

*(informazio gehiago eskuragarri*

*[www.independentziaeguna.net](http://www.independentziaeguna.net) webgunean)*

### SORALUZKO GAZTE INDEPENDENTISTAK

Dena dela, gure taldeak Osoko Bilkuran proposamen zehatz bat egin genion Udal Gobernuari. Obretan diharduten eremuan gune bat estalita zehazten da proiektuan.

Gure proposamena gune estali hau lanak bukatu ondoren gazteleku bezala ahalbideratzea izango litzateke edota erabilera anitzetako areto bezala, kontutan edukita udalerrian gazteentzako dagoen lokal gabezia. Beraz, espero dugu Udal Gobernuaren aldetik jarraipen zehatzago bat egin dezaten eta urte bukaerarako amaitu ditzatela lanak, herriko gazteek gune egoki bat eduki dezaten negu parterako.

### SORALUZKO EAJ/PNV UDAL TALDEA

Pil-pilean Kultura Elkarrekin ez du bere gain hartzen aldikariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**PIL-PILEAN**

**Argitaratzailea:** Pil-pilean Kultura Elkartea. Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** [pilpilean@euskalnet.net](mailto:pilpilean@euskalnet.net) **Erredakzio burua:** Arianne Unamuno **Erredakzio batzordea:** Leire Iturbe, Enara Agirre, Jon Bausauri, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Arianne Unamuno eta Maite Kintanilla **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarra eta Silvio Vaz **Diseinua eta maketazioa:** Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



SORALUZKO  
UDALA



GIPUZKOAKO FORU  
ALDUNDIA

## bittartetik



Benan Oregi  
Mikro-historixak

Modan dago norberan familiako kontuak, argazki zaharrrak, eskutitzak eta halakuak berreskuratzea. Oñ arte ez jako inportantziarik bape emon. "Zenbat gauza zahar bota da gurian, ezebe balio ez ebelakuan!", esango leuke askok.

Alkarrengandik gero eta urri-nago bizi gara. Horixe da tokatu jakun bizimodua: Aittitta eta amama, andra-gizonak eta ume mordua, Jaungoikuak nahi zittuan guztiak, alkarrekin bizitze hori jua zan pikutara.

Lehengo ahotik-ahorako transmisio-katiak apurtuta dare neurri haundi baten; telebisioa ikustenedo ordenadorian aurrian emoten dogu "etxetik biharrera eta biharretik etxera" egunerokotik gelditzen jakun denpora apurra. Jendez inguratuta eta sosiguz bizitzetik bakardade gero eta haundixagora eta harrapatata. Lehengo bizimodua ez zan hobia, diferentia zan, baina ohi-ttura on asko galdu egin da (barriketak, kantua, lagun-arteko girua...). Horregaittik dauka inportantzia nagusixeri entzutiak, gauzak gordetziak...

Bittartekuak ez jakuz falta. Ez da gehixago bihar hurrengo be-launaldixeri aurrekuen altxorra pasatzeko.

### Aurkeztu zure burua soraluzetarrei.

Zarautzen bizi naiz eta 40 urte ditut. Bi aste inguru daramatzat Soraluzeko zaharren egoitza kudeatzen.

### Zein izango da hemen beteko duzun funtzioa?

Nire lana zaharren egoitzako administrazioa eta kudeaketa bideratzea da. Hemen dauden nagusiei ahal den eta kalitate hobereana eskaintzea zerbitzuetan. Baina hau ezin daiteke aurrera eraman langile guztien laguntzarik gabe.

### Zergatik aukeratu duzu Soraluzeko zaharren egoitza?

Hemengo egoitzak tamaina egokia du kudeaketa ona martxan jartzeko eta horrek kalitatezko zerbitzua eskaintzea ahalbidetzen du. Egoitza batzuk daukaten tamaina dela eta, zailagoa suertatzen da nagusiei behar besteko arreta prestatzea.

### Zein berrikuntza ekarriko dituzu?

Alde batetik orain dela urtebete hasitako obrak amaitzea. Egoitza eraberritze prozesuan dago eta honi amaiera ematea izango da nire lehentsauna. Gero etorriko dira aurre egin beharko zaizkien erronka berriak.

# ((ENTZUTEKUAK))

MIGUEL FERNANDEZ DE ANTONA  
Zaharren egoitzako kudeatzaile berria



Lehengo eta oraingo kudeatzaileak, elkarrekin.


### Zelako giroa topatu duzu?

Giro ona topatu dut, kexak egoitean normala da baina hemengonagusiak ongi zainduta daude. Tratu oso egokia da eta medikuntza zerbitzua ezin hobea. Bazkariak ere kalitatezkoak izaten dira. Niretzat aipatutakoak ongi betetzea ezinbestekoak dira egoitza batek kalitatezko zerbitzuak eskaintzeko nahiz eta eraikina nahiko zaharra izan.

### Zenbat denbora egongo zara kudeatzaile lanetan?

Momentuz bi aste daramatzat lanean eta ez dakit zenbat denbora luzatuko den nire egonaldia egoitza honetan. Bizitza luzea da eta... ☺

Obrak amaitzea da nire lehentasuna



**TXURRUKA**  
**JATETXEA**

Txurruka auzoa  
20590 SORALUZE

T. 943 75 15 81

**HNOS. BENITO**  
**ANAIAK**



Etxeko eta Sukaldeko Altzariak  
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. y F. 943 75 20 47  
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

# Bazkideak nagusi, egoitza berriaren inaugurazioan

Pasa den barixakuan, hilak 3, Pil-pilean Euskara Elkartearen egoitzari hasiera ekitaldia egin zitzaion. Ospakizunik ez zen falta izan. Etxapli-ru batekin eman zitzaion hasiera ekitaldiari eta jarraian, herriko musikari batzuk Mikel Laboaren “Herria eta hizkuntza” kanta

Ekitaldearen ostean bazkideak jan-edanean.



ezaguna abestu zuten. Ondoren, elkarteko zenbait kidek euskarren erabileraren beharraz hausnartu zuten, poesia errezitaldi bati bide emanez. Elkarteko zuzendaritzako hainbat kidek egoitzaren kanpoaldean kokatutako errotuluak destapatu zituzten eta euskararen aldeko brindisa egin zen bazkideen eskutik. Bertaratutakoek pintxoak dastatzeko aukera izan zuten eta ekitaldiaren amaieran, elkarteko materiala zozketatu zen.

## Herriko elkarten bilgune

Pil-pileaneko egoitzan, Pil-pilean Euskara Elkarteaz gain, herriko hainbat elkarte ere bilduko dira hemendik gutxira. Alde batetik, Mendi Taldeak eta Euskal Herrian Euskarazek bertan hartuko dute lekua. Bestalde, Dantza taldeak, Euskal Jai Batzordeak eta Galtzagorri Jai Batzordeak egoitzako bilera gela erabiliko dute beraien batzarrak egiteko.



## Galdutako txakur bat



Irailaren 20an, txakur hau jaberik gabe galduta agertu zen. Bere jabea ahal den eta azkarren topatzeko, ezaguna egiten bazaizu 943 75 13 04 telefonora deitu edo udaltzainen bulegora, 943 75 30 24 telefonora.

## Etorkinentzako euskara ikastaroa ez da emango

Udalak antolatutako etorkinentzako euskaraz trebatzeko ikastaroa ez da emango behar besteko jende faltagatik. Bost pertsonak eman dute izena eta sei behar ziren. Dena dela, Udaletik ikastaroa mantentzen saiatu direla adierazi dute baina ezinezkoa izan da izena emanda zutenen ordutegia bateraezina zelako.

## Larrialdietarako etxebizitza

Udal Gobernu Taldeak jakitera eman du behar izanez gero herritarrek larrialdietarako etxebizitza bat erabiltzeko aukera dutela. Zerbitzu honen erabileran parte hartzeko, Udaletxearen ondoan kokatutako gizarte zerbitzuetako bulegora jo behar da. Gaur egun familia bat bizi da bertan.

## Kolektorearen inguruko zalantzak

Ibaiko kolektorearen obrei buruzko argibideak emateko eta zalantzak argitzeko herritarrekin bilera egingo da urriaren 22an, arratsaldeko 18:00etan Udaletxeko pleno aretoan. Sarrera libre da.

## Kotxe bat eskaileretan behera

Irailaren 26an, Soraluzekoa ez den pertsona bat bere autoarekin frontoitik galipoterako eskaileretan behera joan zen. 2 garabi erabili zituzten kotxea ateratzeko. Gidariak ez du ezer larririk.



Iturria: A. Aizpuru



## SAN ANDRES

### ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46



## MENDIZABAL

### okindegia

Kalebarren 10  
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6  
T. 943 75 13 99

**SORALUZE**



## Guztira berrogei lagun inguru euskaraz ikasten

Lehen hezkuntzako eskolan jangela zerbitzua



Lehen hezkuntzako eskolak jangela zerbitzua berrikuntza batekin ireki du ikasturtea: beti geratzen ez diren sei umerentzat jateko lekua gordeko dute. Noizean behin jaten geratu nahi dutenek 943 75 19 37 telefonora deitu beharko dute izena emateko.

### Haragi gisatu txapelketa Itxaropenan

Jubilatuak datorren eguenerako, hilak 16, haragi gisatua prestatzeko lehiaketa jarri dute martxan. Izena emateko epea zabalik dago eta informazio gehiago eskuratzeko bertara jo.

### Gaztañerre Azoka prestatzeko batzarra

Urriaren 14ean, martitzena, Gaztañerre Azokarako basarritarrekin eta postua ipiniko dutenekin bilera egingo da arratsaldeko 19:00etan udaletxeko pleno aretoan.



Ikasturte berrian berrogei lagun inguruk aukeratu dute euskara ikastea. Herrian bi elkarte desberdinek burutzen dute euskara ikasteko eskolak. AEK euskaltegian hogeita bost pertsonak eman dute izena eta maila guztietako eskolak ematen dituzte. Astelehenetik ostegunera bitartean eskaintzen dituzte klaseak eta hiru orduetegi desberdinetan; goizean, 9:45etik 12:15ak arte. Eguardi aldean, 2:30etik 4:30era eta iluntzeko 19:00etatik 21:00etara. Izena ematea nahi duenak lehen bait lehen egin de-

zala eskatu dute irakasleek **943 75 14 34** telefonora deituta.

### NHI(EPA)n ere izena emateko aukera

Nagusientzako Hezkuntza Iraunkorrean ere euskaraz ikasteko aukera dago. Bertan hamabost lagunek hartzen dute parte euskaraz ikasteko eskoletan eta maila guztietako klaseak eskaintzen dituzte. Izena emateko aukera dago oraindik, interesatuek **943 75 30 17** telefonora deitu. ☺

**ARRANO**  
tabernia

etorri eta gozatu  
giro euskalduna eta sanua

etxera

**Etxabe Harategia**

Euskal txabalkia  
Bildotsa

Merkatu Plaza 6-7 Postuak Telef. 943752375

**aras S.A.L.**

DIN arauak jarraituz eta  
zehaztasun handiz egindako torniluak

Industrialdea 20-21  
50 Posta Kutxatila

Tfnoa 943 75 17 36 - 75 18 03  
Faxa 943 75 22 95  
20590 Soraluze

**Lakuesta**  
Optika

Ikusmen arazozen frogak  
eta argibideak  
Parafarmaziako produktuak

Santa Ana, 22 C. behea  
20590 Soraluze  
T. 943 75 30 59

**“Beti egongo da irtenbideren bat”**

**MERTXE GALARRAGA**



## KRiS - KRiS... KRiSiAREN HOTSA

Soraluzen ekonomia arloa eta enpresa mundua zertan den jakiteko honetan adituak diren ordezkari sindikal, bankuko zuzendari eta enpresa kudeatzaile batekin bildu gara. Denek bat egiten dute ekonomian motelaldia dagoela esaterako orduan baina sektore jakin batzuetan ematen ari dela diote.

**MERTXE GALARRAGA,  
KUTXAKO ZUZENDARIA.**

### **Beheraldia edo krisia daguala uste dozu? Igartzen da beheraldi ekonomikua?**

Bai, igartzen da. Eta oporretatik bueltan oraindik gehixago, euriborra dala eta ez dala. Jendia beldurtuta dago eta horrek hipoteka gutxiago eskatzia ekartzen dau. Guk be maileguak ematerako orduan baldintza zorrotzaguak jartzen dittugu lehen baino. Hasiera batian, etxebizitzaren problematika zala eta, jendiak maileguak eskatzen zittuan. Orain, euruakin preziuak asko hasi dira eta erosteko ahalmena murriztu. Jendiak bi aldiz pentsatzen dau orain etxe bat erosteko kredituak eskatzia eta orokorrean maileguak eskatzia. Kredituak ematen jarraituko dogu eta eskaerak ere egongo dira baina beste neurri baten. Jendia orain “espektante” dago, itxaroten.

### **Zelan egitten jago aurre horrelako krisi bati?**

Jendia guregana hurbildu bihar da eta ahal dan neurrixan arazua konpondu. Ezin dira etxian geratu zer gertatuko dan ikusten. Irtenbidiak asko izan leikez, mailegu epiak luzatu, kuota gutxiago

ordaindu... Arazueri aurre egin bihar jakue eta beti egongo da irtenbideren bat.

### **Zela ikusten dozu Soraluzeko sare industrialia?**

Gu partikularren egoera ekonomikuz arduratzen gara. Baina dana dala, kalia igartzen da urduritasuna, lana dalako ekonomiaren motorra. Baina egoeria ez da hain larria. Izan be, jendiak bere soldata kobratzen jarraitzen daben artian ekonomiak aurrera egingo dau.

### **Ze aurreikuspen egitten da beheraldi honen epiaz?**

Zaila da aurreikuspen bat egittia baina esaten da hurrengo urtia be berdina izango dala. Ekonomia ziklo bat da, beti ondo ezin da ibili. Jendia ez da bildurtu bihar, sasoi txarrak be lehenago egon diralako baina pasatu egitten da. Gizartia, aurrezki kutxak... danok bultzatu dogu bizi kalitate oso altua. Bakoitzak ahal daben neurrixan bizi bihar dau.

#### **Hego Euskal Herrian**

- Langabezi tasa %15,5 igo da urtebetean.
- Eraikuntza arloan langabezia %49 igo da
- 2008an, 814 110 kontratu sinatu dira
- Horietatik 76 343 lan kontratu fijoak, %90,8 dira sinatutako kontratu tenporalak.

#### **Soraluzen**

- 4062 biztanle
- Sinatutako kontratu kopuarua 2007an: 561
- Sinatutako kontratu kopurua 2008ko bigarren hiruhilekoan: 81
- Enplegu sormenaren indizea: Oso baxua.

Datuak: [www.lanbide.net](http://www.lanbide.net)

**ENRIQUE ARRILLAGA,**  
**INDUBRIK EGUR LANTEGIKO KUDEATZAILEA**

### **Beheraldixa edo krisia daguala uste dozu? Igartzen da beheraldi ekonomikua?**

Bai, danok igarri dogu. Etxeko ekonomietan igarri dan moduan, industrian be nabari da krisi dalako hori. Gure sektorian baina, aspalditik dator beheraldixa. Egurra lantzen dogu eta bere balixua asko jeitsi da urte batzuetatik ona.

### **Zela egitten jako aurre horrelako krisi bati?**

Ni oso baikorra izaten saiatzen naiz eta uste dot nahi izanez gero, arazuari aurre egin geinkixola. Egoera berrira ohitu biharra dago eta produktua saltzeko bide barrixak topatu. Gure lantegixak, esate baterako, interneten web orri barrixa zabaldu dau eta bertan gure produktuak eskaintzen dittugu. Produktuen balore materialaz gain, beste hainbat faktore gehitu bihar jakuez arrakasta izateko. Orain, egurrezko ate barrixak sortzen hasi gara eta material ona erabiltzen dogu. Egoerari buelta emotia gure esku dago.

### **Zela ikusten dozu egoera ekonomikua orokorrian?**

Preziuak oso altu dare eta agian ekonomian beheraldixak onera egingo doskula uste dot. Gaur egun, egoeria ez da oso ona baina lehenago sasoi txarrak bizi izan dittugu eta aurre egin jako. Preziuen normalkuntza bihar-biharrezkua da gizartiarentzat, gauzak gero eta garestixago darelako. Etxebizitzen prezioak bere topia jo dau eta orain beheraldixan dago normala dan moduan. Eta beste gauza guztiekin berdin.

### **Ze aurreikuspen egiten da beheraldi honen epiaz?**

Lantegixa 1992. urtian sortu genduan eta krisialdi egoeria zan. Ostera, egurrezko xafiak egitten

genduzen bakarrenetakuak ginanez, oso ondo urten ginan aurrera. Gero, azkeneko urtietan atzerriko produktuak gure merkatua jan dabe baina oraingo krisialdixakin lantegi haundixak irten dira galtzen, eskaintza asko murriztu jakue eta. Nere ustez, bi edo hiru urte iraungo dau beheraldi garai honek.

### **LAB SINDIKATUA**

### **Nola baloratzen dozue egoera ekonomikua?**

Ekonomia zuzentzian arduria merkatuari emon jako eta helburu bakarrakin: ahalik eta denbora gutxien ahalik eta etekin eta irabazi gehixen etaratzia. Garai oparuak izan badira, batzuentzat izan dira bakarrik. Langileguak beste egoera bat bizi izan dau: enpleguan kalitate eza, prekarietatia, hila azkenera aillegatzeko balio ez daben soldatak, zorpetze ikaragarrixak...esate baterako, etxe bat eukitzeko.


### **Nundik datoz, orduan, krisialdi hotzak?**

Krisixan inguruan diskurtso asko dago baina eztabaida sakon gutxi, eta beste behin be, noski, langiliok gara fase ekonomiko honetan eta instituzio honen eskutik gehixen ordainduko dogunak: lan erreforma barrixak, gastu sozialan murrizketa eta langabezia mailan haunditxia ez dira nolana hikuak izango. Gastu publikua haundi-tzeko ez dagan dirua, orain arte izugarritzko irabazixak izan dittuenen eskuetan jarriko da. Irabazixak betikuentzat eta galerak danon artian ordaindu bihar.

**“Saltzeko bide berriak topatu behar”**  
**ENRIQUE ARRILLAGA**

**“Krisixan inguruan, eztabaida sakon gutxi”**  
**LAB SINDIKATUA**

### **Zela egitten jako aurre horrelako krisi bati?**

Euskal Herrixan aberastasan nahikua sortu da eta sortzen da danon bizi baldintza duinak bermatzeko. Hau izan bihar da egin biharreko eztabaida sozial eta politikuan oinarrixa. Aberastasan banaketa ekarriko daben neurrixak bultzatu eta exijittuko dotseguz arduradun politiko eta instituzionalei. 

LAB sindikatuko kideak



# ZER TRISTEN DOTSAZU?

## Ze irizten dotsezu etorkineri ipinitako baldintza zorrotzeri?

Europako Batasunak paperik gabeko etorkinen gaineko zuzentaraua onartu du. Besteak beste, ebazpen judizialik gabe atxilotze aginduak emateko aukera adosten da.

**IÑAKI ETXABE**  
Gol-eko langilia



**O**so gaizki iruditzen jata adostutako arau barrixa. Danok pertsonak garan aldetik ezin leike horrelako erabaki bat hartu. Etorkinak guregana laguntza bila datoz, hobe-kuntza baten bila.

**JUAN JOSE LEGARIZTI**  
SAPAKo langilia



**O**so gaizki pentzatzen jata horrela atxilotzia. Zegaittik etortzen diran begiratu bihar da; beren lurraldeko egoera latza izan bihar da benetan guregana etortzeko. Laguntza bila datoz batez be.

**MARGARITA URIARTE**  
Etxekoandria



**O**so gaizki ikusten dot. Gurera bada-toz, gutxienez, ahal dan eta egoera onena topatu biharko dabe. Inor ez da bere herrialdetik gogoz urteten. Pertsona naizen aldetik, danontzat onena dan neurrixa hartzia nahiko neuke.


**FELISA MARTIN**  
Etxekoandria




**H**artutako erabakixa larregikua da. Guri be tokatu jakun beste herrialdietara lan bila juatia eta orain alderantziz suertatzen da. Oso gogorra da gainera berek egitten dabena. Danontzat onena dan erabakixa hartzia gustatuko litzaidake.

### KOMIKIXA

Marraztu itzazu etorkin batzuk!




Ez... iristeko laguntzarekin baina.



Baina errealagoa... dagozkien arriskuekin.



Baina paperekin! Heltzen direnean nahikoa izango dute eta!



**Ion Murgizu Pinturak**  
MARGOKETA OROKORREAN  
Empapelatuak  
Estukoak  
Fatxadak  
Eskilarak eta patioak  
Pintura industrialak  
T. 943 75 1324 M. 652 777 030  
Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

Javier Alonso Zelaeta  
MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
K.Z. 20.000.434  
Jon Azkorbebeitia Txurruka  
K.Z. 20.000.752

**HORTZ KLINIKA**  
Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

**Eguzkiñe Aldazabal argazkiengatik saritua**



Eguzkiñe Aldazabalek Zumarraga eta Urretxuko argazki lehiaketan bi sari jaso ditu. Txuri beltzez aurkeztutako argazkietan hirugarren saria eskuratu du "Txingurri langileak" argazkiarekin eta koloreetan aurkeztutako "enborrak" argazkiarekin aldiz, lehen saria.

**Dantza taldearen ordutegia**

Dantza taldeak ordutegia finkatu du. Sei-zazpi urteko neskek barixakuetan, arratsaldeko 17:15etik 18:00etara ariko dira goiko eskolan; 8 urtetik gorako neskek 18:00etatik 18:45era eta mutil gazteak 19:00etatik 20:00etara. Neska nagusiak hamabostean behin egue-netan 19:30ean Ezozki bideko loka-lean batuko dira, datorren astean hasita.

**Nafarroa Oinezako autobusa**

Urriaren 19an Iruñean egingo dute Nafarroako ikastolen aldeko jaia. Izena emateko jarri harremanetan Pil-pileanekin edo Iratxo goxodendara jo. Autobusa 9:00tan irtengo da Estaziotik eta iluntzean bueltatuko da.

# Jazza eta musika beltza Deba bailarako herrietan

Bosgarren urtez Gaztelupeko hotsakek jazz eta musika beltzaz gozatzeko jaialdia antolatu du. Izen aldaketa izan du aurten; Debajazzen ordez Errabaljazz izango da. Funk, swing, soul & blues, jazz latino eta beste hainbat estilo uztartuko dituzte urriaren 17tik 26ra. Guztira 4 emanaldi desberdin antolatu dituzte, Mutriku, Elgeta, Soraluze eta Elgoibarren eskainiko direnak. 🎵



**EGITARAU ZABALA**

**Yuri Gagarin Trio eta Antonio Vega**

Urriaren 17an Elgoibarko Herri antzokian, 22:15ean.

**The Commitments (soul of Dublin)**

Urriaren 18an Elgetako Espaloia Kafe Antzokian 22:30ean.

**Jazz Voices Ensemble**

Urriaren 24ean Soraluzeko kapillan, 22:30ean.

**Mamassita Pro**

Urriaren 26an Mutrikuko Zabel kultur etxean 20:00etan.

## Revelphone taldea Danbakan

Debagoieneko Musika Lehiaketako III. Edizioan parte hartuko du Revelphonek. Danbaka.com webgunean bozka eman dutenek erabaki dute Revelphone taldea izango dela zuzenean arituko den 24. taldea; gaitontzeakoak epaimahaiak aukeratu ditu. 🎵



**TXOKO KAFETEGIA** 

Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22, behea, Soraluze. T. 943 75 17

 **PASCUAL CHURRUGA, S.A.**

Hotzian eta bueruan jotako tornilluak

**Errekalde 21 20590 SORALUZE**

T. 943 75 00 06  
T. 943 75 16 00  
F. 943 75 24 61

**GILA TABERNA**

GOIZEKO 6:30ETATIK AURRERA ZABALIK

**GOSARIAK ETA PINTXO GOXO GOXUAK** 

**ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34**

 **Desing**

*Disceinua eta Sormena*

Poligono Amillaga, nº 5  
Tlf.: 943 76 99 85  
20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

# Pilates ikastaroa, kiroldegiko eskaintzan

**K**iroldegiak eskaintza zabaldua luzatzen du gorpuztza zaintzea nahi duten guztientzat. Hainbat iharduera jarri ditu martxan kurtsoa hasi berri den honetan.

**Aerobik**-eko klaseak emango dira astean 4 eguetan. Astelehen eta eguaztenetan iluntzeko 20:00etan eta martitzen eta eguetan goizeko 9:05ean. **Pilates**-en ere izena emateko aukera dago eta astean 4 eguetan egingo da. Astelehen eta eguaztenetan arratsaldeko 18:00etan eta martitzen eta eguetan goizeko 10:00etan.

**Aquagym** egin nahi dutenek, berriaz, ordutegi oso malgua dute. Astelehen eta eguaztenetan goizeko 9:00etan eta martitzen eta eguetan 14:40ean eta arratsaldeko 18:40ean praktikatzeko aukera dago.

**Igeriketa ikastaroak** ere eskaintzen dira. Honetan, bi aukera desberdin daude. Lehena, hasiberrientzat, martitzen eta eguetan 20:00etan eta bigarrena, bere estiloa hobetu nahi dutenentzat, astelehen eta eguaztenetan arratsaldeko 19:00etan. 🌀



## Hiru autobuskada Ernioara

Irailaren 28an Mendi taldeak Ernioara antolatutako irteeran 140 lagunek hartu zuten parte. Giro bikainean egunpasa ederra egin zuten. Argazkia, Ermiotik jeitsi zirenekoa, Trintxerako ostatuan



Iturria: N. Mendia

## EMAITZAK

### PILOTA

Titin III – Laskurain 22  
Gonzalez – Pascual 18

Titin III – Goñi III 22  
Gonzalez – Laskurain 10

Jauregi – Insausti 22  
Beste bikote bat 13

### FUTBOLA

Arizmendi K.E - Sora (erreg.N.) 0-6  
Urki D.C. - Sora (erreg. M.) 1-4  
Sora (jub) - Mondragon C.F. 1-11  
Sora (kad) - Aretxabaleta K.E. 1-3

## AGENDA

### PILOTA

**Domeka 12, 16:30etan**  
**Atano III (Donostia) (ETB1)**

Berasaluze VIII - Begino  
Xala - Laskurain

### FUTBOLA

**Domeka 12, 17:00etan Ezozin**  
Sora - Arizmendi (erreg.N.)

**Zapatua 11, 16:30ean Ezozin**  
Sora - Gazteak F.T. (erreg.M.)

**Domeka 12, 18:00etan Unben**  
Eibartarrak - Sora (jub.)

**Zapatua 11, 10:30ean Unben**  
Eibartarrak - Sora (kad.)

### MENDI IRTEERA

Urriaren 12an Xoxotera  
Urriaren 26an "Plaentxi ezagutu eta bazkaria" irteera.

Izena emateko: Urriaren 20a azken eguna, Iratxo goxodendan edo Plaentxiko Herri ikastetxean.

**MARE**  
ILEAPAINDEGIA

**ESTETIKA**  
**SOLARIUM**

Errabal kalea 1, behea  
Tel.: 943 75 14 89  
20590 SORALUZE

**GAZTELUPE**  
taberna

tel: 943 75 20 81



## ZORION AGURRAK



**Irati Perez Claver**  
Urriaren 2xan, 7 urte  
Patxo potolo bat  
Etxekuen partez.



**Nora Mendia Altuna**  
Irailak 30ean 4 urte  
Zorionak politta!  
Etxekuen partez



**Alberto Alvarez Palacin**  
Urriaren 26an urtebete!  
Zorionak eta muxu handi bat  
Etxekoen partez!



**Iker Guridi**  
Urriaren 2an, urtebete  
Zorionak eta patxo  
handi bat. Etxekoen partez



**Oihana Garitano Barrutia**  
Urriaren 6xan, 29 urte  
Zorionak tia Oihana!  
Zure iloba guztien partetik!



**Irati Hernandez Muro**  
Urriaren 14an urtebete!  
Zorionak sorgintxo!  
Muxu handi bat, June  
eta etxekuen partez



**Oier Gonzalez Gallastegi**  
Urriaren 10ean, 5 urte!  
Zorionak polittori eta  
muxu asko familiaren partez!



**Beñat Goenaga**  
Urriaren 9an 6 urte!  
Zorionak danon partez!  
Beti bezain jator jarraitu!



**Naia Intxaurbe  
eta Miren Rivero**  
Urriaren 17xan eta azaruan 20xan  
Zorionak eta muxu handi bana!  
Etxekuen partez.


### jaiotakoak

AIURI GISASOLA LARREATEGI  
EUKEN MENDIA HERNAEZ



### hildakoak

CELSO GARRIDO VILA




## OHARRAK

### Eskerrak Marraskilo Tour-eko antolatzaillari

Udal Gobernu Taldeak eskerrak eman nahi die Marraskilo Tour antolatu duten guztiei, prestakuntza lanetan egindako lan handiak bere fruituak eman dituelako eta mendizaletasuna bultzatzeko ahaleginetan egindako esfortzuagatik. Zorionak!

**UDAL GOBERNU TALDEA**

## LEHIAKETA

### AURREKO ALEKO ERANTZUNA

#### ► Zela da kukumixo ibiltzia?

- 1- makurtuta, belauak batuta
- 2- ezkutaketan
- 3- "kuku" esanaz

#### ► **Saria:** 30 €ko bonoa Kooperatiban gastatzeko

#### ► **Irabazlea:** Aurreko aleko lehiaketan ez da partehartzailerik izan.

- Zubixa 1967xan inauguratu zan eta orduan jarri zan daguan eskultura. Garai honetan zeguan alkatiak, Jose Luis Larrañagak erosi zeban Madrileko antzineko gauzen denda baten 25 000 pezetagaittik. Udaletxian batera erositako beste eskultura bat dago; hau be 25 000 pezetagaittik erosittakua.

# ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: J. Berrueta

## URTEETAKO LANARI OMENALDIA

1988xan Jose Berruetak agur esan zotsan eskualdeko arbitrua izateari. Ehundaka partidu arbitratu zittuan Eibarren, Bergaran, Soraluze... Argazkixan, 1988ko urtarrilan batian urtietan egindako lanagaittik Soraluze Futbol Taldiak egin zotsan omenaldixa Ezozi futbol zelaixan.🌀



**Gaztañerre Azoka egunerako laguntzaileak behar dira.**

(Pil-pileanen posturako, txoznako turnoetarako...)

943 75 13 04 / [koordinazioa@pilpilean.com](mailto:koordinazioa@pilpilean.com)



**PIL-PILEAN**  
EUSKARA ELKARTEA